



URTEKO TXOSTENA 2015

SPRI TALDEA

NAZIOARTEKOTZEA

Azken ekitaldi honetan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak nazioartekotzea bultzatu du SPRIren bitartez, euskal enpresek beren lehiakortasuna hobetu dezaten. Ahalegin handia egin da enpresei jomuga zehatzei buruzko negozio aukeren berri emateko (horretarako egin direlarik **11** sektore/herrialde eta aukera/herrialde ekitaldi Euskadin eta **19** topaketa atzerriko merkatuetan dauden euskal enpresentzat), akordioak sinatzeko eta negozioak atzemateko jarduera multilateraletan parte hartzeko.

Ekintza horien helburua bat eta bakarra da, enpresek behar adinako informazioa eta laguntza izan dezatela beren nazioartekotze prozesuei buruzko erabakiak hartzean. Testuinguru horretan, 2015ean SPRIk nazioartekotzeari buruzko **1.740** kontsulta edo zerbitzu puntual izan ditu.

Aipatzekoak dira baita ere SPRIk Euskadira bisitan datozen ordezkariak instituzionalen edo enpresa ordezkariak harira

antolatzen dituen jarduerak; batzuetan jarduera horiek kanpoko ordezkartzen interes eta ekimenengatik antolatzen dira eta, bestetan, SPRIk edo beste euskal erakunde batzuek gonbidatzen dituztelako. SPRIren bitartez goi-mailako **63** agintaritzak bisitatu dute Euskadi, **128** bilera instituzional izan dituzte atzerrian, eta horri esker kontaktu kualifikatu eta interesgarriak lortu dira nazioartekotzeko proiektuetarako.

SPRIk nazioartekotzearen alde garatutako jardueraren balantzea

Nazioartekotzeko zuzeneko laguntza zerbitzua

Ekitaldi honetan SPRIk **173** euskal enpresak sustatutako **374** proiektu gauzatu ditu, zeintzuentzat **359** Laguntza Zerbitzu eman baititu. Zerbitzu horietatik **63** (%17) Arabako Lurralde Historikoko enpresentzat izan dira, **139** (%37) Bizkaian kokatutako enpresentzat eta **172** (%46) Gipuzkoako Lurralde Historikoko ETEentzat.

Gauzatu diren **374** proiektuen jomugak eremu geografikoa

Eremu geografikoa	Proiektu kopurua	Portzentajea
Europa	110	%29
Asia eta Ozeania eremua	79	%21
Ipar Amerika	71	%19
Latinoamerika eremua	58	%16
Afrika eta Ekialde Ertaina	56	%15

Proiektuak herrialdeka banakatuz gero Mexiko izan da nagusi, guztira 39 proiekturekin; Alemania eta Txina izan ditu atzetik 30 proiekturekin eta ondoren Estatu Batuak 26rekin. Segidan datoz Txekia eta Eslovakia (20), Kolonbia (18), Txile (16), Errusia (15), Polonia (13), India eta Japonia (12), Turkia (11), eta, azkenik, Brasil (10).

SPRIren kanpo sarea

Kanpo sarearen egituran egin den berrantolaketak helburutzat du SPRIk eskaintzen duen laguntza hobetzea eta Sare osoa egokitzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak lehentasunezkoztat jo dituen merkatuei.

Hala, 2015ean SPRIren Singapurreko bulegoa inauguratu da.

Kanpo Sareak euskal enpresekin eginiko topaketak

Urtean birritan SPRIk Euskadin biltzen ditu bere **Kanpo Sareko** ordezkariak, euskal enpresen zerbitzura egon daitezen. Lehen topaketan bilerak hiru euskal hiriburuetan egiten dira, enpresari guztiek aukera izan dezaten **Kanpo Sareko** profesionalei nahi dutena galdetzeko eta haien aholkuak jasotzeko.

Lehen topaketa hori apirilean izan zen eta **474** elkarrizketa egin zituzten. Elkarrizketa gehienak Europari buruz egin ziren, **128** guztira (%27). Latinoamerikari buruzkoak **100** izan ziren (%21,10), Asiari buruzkoak **82** (%17,30), Afrika eta Ekialde

Ertainari buruzkoak **79** (%16,67), Ipar Amerikari buruzkoak **77** (%16,24) eta Multilateralei buruzkoak **8** (%1,69).

Enpresek azaldutako interesa herrialdeka aztertuta, hauek izan dira elkarrizketa kopururik handiena hartu zutenak: Estatu Batuak (34 elkarrizketa), Mexiko (31), Kolonbia (25), Peru (23), Txile (21), Alemania (21), Txina (21), Brasil (20), Maroko (17) eta Iran (16).

Oraingoan, topaketekin batera, ordezkaturako eremu edo herrialde bakoitzari buruzko **8** hitzaldi-eztabaida eskaini ziren.

Entzule kopuru handiena Peruri buruzko hitzaldira joan zen, **55** lagun guztira. Irani buruzkoak **29** parte-hartzaile izan zituen eta Estoniari buruzkoak **28**.

Horrez gain, SPRIk **INTERGUNE+2015**, “Topaketak SPRIren **Kanpo Sarearekin** BECen” ekitaldia antolatu zuen 2015eko azaroaren 23an eta 24an. Testuinguru berri batean kokaturik, **44** erakusle eta **40** herrialdetako SPRIren ordezkariak bildu ziren. Bestalde, interes handiko **20** hitzaldi edo jardunaldi eskaini ziren, izen handiko hizlarien eskutik.

Azaroaren 23ko jardunaldiak

- Inaugurazioa. Arantxa Tapiak, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuak, parte hartu zuen.
- “Polonia, negozio eta inbertsio aukerak” jardunaldia.
- “Kolonbia” jardunaldia.
- “Nazioarteko operazioetako arriskuen kudeaketa” jardunaldia.
- “Nazioarteko IKTen azpiegituren hedapena” jardunaldia.
- “Nazioarteko posizionamenduaren giltzarriak” jardunaldia.
- “EBren eta Kanadaren arteko ekonomi arloko itunaren alde biko merkataritzarako aukerak” jardunaldia.
- “Iran, eszenatoki berria” jardunaldia.
- “Filialen kudeaketa atzerrian” jardunaldia.
- “Merkataritza Ganberak” jardunaldia.
- “Euskadira atzerriko inbertsioa erakartzeko estrategia” jardunaldia.
- “Nola heldu onlineko denda bat nazioartekotzeko erronkari?” jardunaldia.

Azaroaren 24ko jardunaldiak

- Nazioarteko Lankidetzeta Teknologikorako laguntzak eta programak. [Enterprise Europe Network-EEN](#).

- Junker Planaren aurkezpena.
- “Mexiko: inbertsiorako herrialdea” jardunaldia.
- “Kuba, marko ekonomiko berri bat” jardunaldia.
- “Namibia, the emergent and stable market” jardunaldia.
- “Nazioarteko merkatu nitxoetako liderrak, Euskadiren kasua” jardunaldia.
- “Cabo Verde, Afrikan sartzeko plataforma” jardunaldia.
- “Merkatu multilateraletako aukerak” jardunaldia.

Entzule gehienak inaugurazio jardunaldian bildu ziren, ondoren, hauek izan ziren, hurrenez hurren, jende gehien batu zuten hitzaldiak: “Mexiko, inbertsiorako herrialdea”; “Nazioarteko operazioetako arriskuen kudeaketa”; “Nazioarteko posizionamenduaren giltzarriak”; “Kuba, marko ekonomiko berri bat” eta “Kolonbia”.

SPRIren [Kanpo Sare](#) osoa jarri zen euskal enpresen esku, eta SPRIk arreta berezia eskaini zien sail hauei: [Invest in the Basque Country](#), [Entreprise Europe Network](#), CDTI eta [Multilateralak](#).

Hona hemen elkarrizketa kopuru handiena hartu zuten herrialdeak: Mexiko (29 elkarrizketa), Kolonbia (28), Estatu Batuak eta Txile (27), Alemania (26), Argentina (24), Txina,

India, Erresuma Batua eta Irlanda eta Errusia (20), Frantzia eta Brasil (18), Iran, Peru eta Herrialde Baltikoak (17), Arabiar Emirerriak eta Asean (16), Maroko eta Polonia (15), Kanada (13).

Eremu geografikoka, Europari buruzkoak izan ziren elkarrizketa gehienak (182), ondoren Latinoamerikakoak (124), gero Afrika eta Ekialde Ertainekoak (96), Asia eta Ozeaniakoak (88), eta Ipar Amerikakoak (69).

INTERGUNE+2015 ekitaldiaren emaitzak		
1.414 parte- hartzaile	Bilerak erakusleekin	484
	Bilerak SPRIren Kanpo Sarearekin +Invest + EEN + CDTI	609
	Atenditutako kontsultak guztira	1.093

Negozio aukeren hedapena eta informazioa

SPRIk euskal enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen merkatu eta sektoreei buruzko hainbat hedapen- eta informazio-jarduera antolatu ditu. Hala, guztira **11** jardunaldi egin dira, zeintzuetan beste merkatu edo sektore batzuetara sartzeko proiektuen alderdi espezifikoak aztertu baitira. Ekitaldi horietan parte hartu zuten, besteak beste, enpresa handietako nahiz atzerriko taldeetako erosketa zuzendariak eta departamendu teknikoetako zuzendariak, euskal enpresei beren erosketa eta inbertsio planak aurkezteko. Jarduera horien osagarri gisa banan-banako bilerak eta fabriketarako bisitak ere egin ziren.

Era berean, herrialde hauetan **13** jarduera antolatu dira atzerriko merkatuetan dauden euskal enpresentzat: Kolonbia, Kolonbia, Txile, Txina (Wuxi eta Shanghai), Mexiko, Kolonbia, Mexiko, Kolonbia, Alemania eta Polonia (Katowice eta Varsovia).

Bestalde, euskal enpresen urteko **6** topaketa antolatu dira herrialde hauetan: Mumbai-India, Celaya-Mexiko, Barruti Federala-Mexiko, Txina, Brasil, eta Brasilen berriro.

SPRIk eskaintzen duen laguntza zerbitzuaren hedapen-ekintzak osatzeko, 2015ean (urtarriletik abendura) **230** bilera / bisita

instituzional inguru egin dira, **354** ekitaldi ingurutara joan da, eta hizlari bezala parte hartu da horietatik **35**etan.

Nazioarteko lankidetzako jarduera multilateralak

Arlo honen helburu nagusia da euskal enpresei sarbidea erraztea merkatu multilateraletara, Garapenerako Banku Multilateralen eta Nazioarteko Finantza Erakundeen babes eta finantzaketarekin gauzatutako proiektu, kontratu eta ondasunen erosketetara, eta organismo horiek garapen bidean dauden herrialdeetan sektore pribatuko inbertsio proiektuak burutzeko ematen duten finantzaketara.

Era berean, asmoa da euskal enpresa eta erakundeek eremu estrategikoetako nazioarteko lankidetzako proiektuetan parte har dezatela, batetik, zerbitzu aurreratuak edo ondasun eta ekipoentzako zerbitzuak ematen dituzten euskal enpresentzat negozio aukera berriak sortzeko nazioarteko merkatuetan eta, bestetik, Euskadi zenbait eremutan nazioarteko eragile garrantzitsu bihurtzeko eta erreferentziazko eredu izateko politika publikoen edo lankidetzako publiko-pribatuko politiken arloan, gure herriak atzerrian duen irudia indartuz.

Nazioarteko lankidetzaren multilateralaren hedapena eta ikusgarritasuna. Negozio aukerak:

- “**Country Snapshots**” sortu da, enpresetan zabaltzeko euskal enpresentzat lehentasunezkoak diren herrialde eta sektoreetan zentratutako **snapshot-ak**.
- **Expanding News**. Nazioarte Sailaren newsletter-a. Newsletter horretan aldian behingo informazioa ematen hasi da erakunde multinazionalak hirugarren herrialdeetan finantzatzen dituzten proiektuetako negozio aukerei buruz.

Jardunaldiak

INTERGUNE+2015 ekitaldiaren barruan, “Burdinbideen sektoreko enpresentzako aukerak merkatu multilateraletan” jardunaldia antolatu da DFI, Development Finance International, Inc., eta MAFEX, Espainiako Burdinbideen Elkartearen laguntzarekin.

Jardunaldi horren helburua izan da bertatik bertara ezagutaraztea Munduko Bankuak, Garapenerako Amerika Arteko Bankuak eta Europako Berreraikuntza eta Garapen Bankuak finantzatzen dituzten proiektuetako aukerak.

Jardunaldia beraizik zuzendu zaie burdinbideetako enpresei eta ekipamendu fabrikatzaileei, eta baita ere sektoreko aholkularitza eta ingeniariari.

Jarduerak enpresekin

2015ean zehar, bilerak egin dira eta harremanak estutu dira **34** enpresa edo organismorekin.

Nazioarteko lankidetzak multilaterala 2015	
Jardunaldiak	1
Jardunaldietako parte-hartzaileak	40
Bilerak eta harremanak enpresa/organismoekin	34

Bidalitako eskaintzak	2
-----------------------	---

Nazioartekotze partzuergoa

Nazioartekotzearen Euskal Partzuergoak (NEP) helburu nagusi hauexek markatu zituen 2015. urterako: ikusgarritasuna indartzea, programen eta sustapen tresnen koherentzia eta eraginkortasuna hobetzea, eta NEP sendotzea enpresen nazioartekotze jarduera kudeatzeko organo lider gisa.

Eskuratutako emaitza garrantzitsuenak:

- Prestazio bateratuen egutegia.
- NEPekeko agenteek [INTERGUNE+2015](#) ekitaldian batera parte hartzea.
- NEPen publizitatutako zerbitzu-zorroa.
- NEPeke enpresen nazioartekotzea sustatzeko garatzen dituen politiken diagnostiko komuna eta ebaluazio txostena.
- Sustapen zuzeneko eredia garatzea.
- Elkarrekin diseinatzea enpresen nazioartekotzearen

sustapenaren etorkizuna.

- NEP berritzea 2016rako.

INVEST IN THE BASQUE COUNTRY

2015ean lan-ildo garrantzitsu bihurtu da atzerriko zuzeneko inbertsioak eta aliantza estrategikoak Euskadira erakartzea, eta langintza horrek hiru ardatz nagusi izan ditu:

- Euskadin kokatutako atzerriko enpresen jarraipen eta sendotze jarduera ([Aftercare](#)).
- [Inbertsioak erakartzeko](#) Lankidetzaren Sarea handitzeko ekintzak.
- [Euskadin ezartzeko](#) aukera aztertzen ari diren enpresei zerbitzu integrala eskaintzea.

Ekintza horien emaitza gisa, 2015ean atzerriko **72** inbertsio proiektu kudeatu ditugu eta **22** proiektu gauzatu dira. **22** proiektu horiek **137,05** milioi euroko inbertsioa sustatu dute, **608** lanpostu berri sortu dituzte eta **1.027** mantenduko dituzte.

Jarraipena eta sendotzen laguntzea

2015eko ekitaldian SPRIk bultzada berri bat eman dio Euskadin kokatutako atzerriko kapitaleko enpresei etengabeko arreta emateko zerbitzuari. Ahalegin honek helburu argi bat du, alegia, enpresa horiei finkatzen eta hedatzen laguntzea ([AfterCare](#) – Jarraipena egitea Euskadin kokatutako Atzerriko Kapitaleko Enpresei eta Sendotzen laguntzea). Horretarako, bilerak egin dira **28** enpresarekin.

Kolaboratzaile Sarea

Gainera, SPRIk proaktiboki lan egin du atzerriko inbertsioa erakarriko duen Kolaboratzaileen Sarea handitzeko, eta Benchmarking jarduerak garatu ditu Inbertsioa Atzemateko Agentzia zenbaitekin. Helburu horrekin guztira **38** topaketa egin dira: Euskadiko klusterrekin, Estatuko eta nazioarteko Banku eta Inbertsio Funtsekin, inbertsioak erakartzen espezializatutako nazioarteko aholkularitza eta zerbitzu juridikoekin, inbertsioa sustatzeko agentziekin, enbaxadekin eta kontsulatuekin.

Atzerriko inbertsio proiektuak

2015ean eginiko lanari esker, **72** proiektu kudeatu dira, horietatik **57** berriak direlarik. Proiektuak sektore anitzetakoak dira, baina aipatzekoak dira, besteak beste: **11** proiektu automozio sektorean, **10** energia sektorean eta **7** aeronautika eta IKTen sektoreetan. Aurten kudeatutako proiektu horietatik **26** **RIS3** sektoreen barruan daude.

Jatorrizko eremu geografikoei dagokienez: **35** proiektu Europakoak dira, **16** Asia-Pazifiko eremukoak, **11** NAFTA eremukoak, **3** LATAN eremukoak, eta beste **7** proiekturen jatorria ezin da definitu, hainbat arrazoiengatik. Kudeatutako proiektuen jatorriari dagokionez, hauek dira azpimarratzekoak: **7** AEB, Alemania eta Frantziako enpresetatik datoz, eta **6** Erresuma Batuko eta Indiako konpainietatik.

Invest in the Basque Country ekimenaren bidez, atzerriko inbertsiodun **22** proiektu berri zehaztu dira. 2015ean atzemandako enpresa proiektuen artean nabarmentzekoak dira: Bombardier (burdinbideak); ASK Chemicals (sektore kimikoa); Zenten Bernhard Groten SL (eskuko erreminta); KKR Winoa Group y Talleres Fabio Murga (galdaketa eta forjaketa); Altran (aeronautika); Thyssenkrupp Elevadores (fabrikazio metalikoa); Trafag (fabrikazio metalikoa); Ve Interactive (EIKTak); Precidast Bilbao (aeronautika); DHL (logistika); Giroa Veolia (energia);

Pandion Partners ALBIA Capital (aholkularitza); Industrias Gol-Kosdaq (automozioa); Atotech Ato (automozioa); Roxtec (oil&gas); Dom SFPI - MCM (eskuko erreminta) eta Subcon GmbH (erosketa zentrala).

ENPRESA SORKUNTZA

ENPRESEN SUSTAPENA

Enpresen sustapenaren atalean, SPRIren lehentasunetako bat da enpresei proiektu berriak garatzen laguntzea, beren lehiakortasuna hobetu dezaten, eta ekintzailatza bultzatzea. 2015eko ekitaldian SPRIk hainbat programa jarri ditu enpresen esku, aurrerakin itzulgarrien edo interes-tasen hobariaren bidez, lehiatzeko behar duten finantzaketa lortu dezaten.

Ekintzailatzaren alorrean laguntza eta aholkularitza espezializatu eta teknikoa emateko programak jarri dira martxan ekintzaile berrientzat, betiere Enpresa eta Berrikuntza Zentroen (EBZ) laguntzarekin. EBZk kudeatzen dituzte enpresa berriak sortzera eta kultura ekintzailea sustatzera bideratutako programak. Hauxe da ekimen horien 2015eko balantzea:

Ekintzaile eta Barnekintzaile

Enpresa eta Berrikuntza Zentroen (EBZ) bitartez kudeatutako programa hauen bidez, enpresa ideia bat heltzeko eta martxan jartzeko laguntza ematen da, baldin eta industriaren edo industriarekin lotutako zerbitzuen arlokoa bada eta oinarri berritzailea edota teknologikoa badu. 2015eko ekitaldian **92 Ekintzaile** proiektu eta **48 Barnekintzaile** proiektu babestu dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomi Sustapen Saileko BEAZ erakundearekin lankidetzan eginikoak barne.

Emaitza horiek EBZ bakoitzean banatuz gero, honelaxe geratzen da:

- CEDEMIIn (Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa) **6 Ekintzaile** proiektu lagundu dira eta **13** enpresa sortu dira.
- BicBerrilan (Gipuzkoa) zentroan **24 Ekintzaile** eta **21 Barnekintzaile** proiektu landu dira eta **23** enpresa berri sortu dira.

- CEIAn (Araba) **9** Ekintzaile eta **19** Barnekintzaile proiektu berri onartu dira. **19** konpainia berri sortu dira guztira.
- Saiolan (Gipuzkoa) zentroan **12** Ekintzaile eta **8** Barnekintzaile proiektu onartu dira. Gainera, **15** enpresa berri sortzen lagundu da.

Mini-connect

Programa hauen bidez oinarri teknologikoa, hazteko potentzial handia eta nazioarteko ezarpena duten ETEei laguntzen zaie, baldin eta negozioa azkar garatzeko premia badute eta betiere gastuen gutxienez %5 I+G-ra bideratzen badute. SPRIk Mini-connect proiektu **1** babestu du.

Ondorengotza programa. Belaunaldi erreleboa

Programa horien helburua da negozioaren kudeaketan edota jabetzan belaunaldi arteko ondorengotza eta erreleboa ahalbidetzea, jardueraren jarraipena mantentzeko, bultzatzeko

eta bideratzeko. 2015ean guztira **30** proiektu onartu dira eta horiei esker **666** lanpostu mantendu dira.

2015eko ekitaldi honetan, hauek izan dira euskal enpresetan enplegua sortuko duten proiektu berritzaileen garapena babesteko kudeatu diren laguntzak:

Inbertsioak egiteko Finantza Laguntzak - AFI

AFI Programa EAeko industria, merkataritza eta turismo arloetako enpresa txiki eta ertainei laguntza emateko ekimena da, epe luzerako eragiketen kostu finantzarioa gutxitzea du helburu eta, horretarako, SPRIekin hitzarmena duten finantza erakundeekin formalizatutako laguntza finantzarioak eskaintzen dira aktibo finkoetan inbertsioak egiteko.

Ekitaldi honetan **103** enpresa onuradun egon dira, **50,19** milioi euroko inbertsioa sustatu delarik **39,78** milioi euroko maileguak eman ondoren.

Gauzatu Programa

Aurrerakin itzulgarriak ematen dituen **Gauzatu programak** industria sektoreko **43** proiektu onartu ditu 2015ean (Gauzatu Industria).

Industriaren arloan onartutako proiektuek **92,501** milioi euroko inbertsioa egitea aurreikusten dute hiru urtean, **555** lanpostu sortuz guztira. SPRIk **25,962** milioi euroko diru-laguntza onartu du horretarako.

Abalen programa

Eusko Jaurlaritzak eta finantza erakundeek sinatutako hitzarmenari esker, berme publikodun ez-ohiko finantzaketa ildo bat aktibatu da eta, horren bidez, bideragarriak diren enpresek merkatuan jarraitzen eta lehiakortasuna mantentzen lagunduko dieten operazioak egin ahal izan dituzte krisian egon arren. Programa honek **14** abal operazio kudeatu ditu.

Renove Makineria

83,16 milioi euroko inbertsioaren bitartez, industri arloko **271** ETEk erabakia hartu dute beren produkzio ekipamenduak modernizatzeko eta laneko segurtasun eta osasun arauak egokitzeko. Gauzak horrela, produktibitate eta lehiakortasun handiagoa dute eta **7.732** lanpostu mantendu dituzte.

TEKNOLOGIA eta BERRIKUNTZA

TEKNOLOGIA

Euskadiko berrikuntza sistema da bere lehiakortasunaren oinarrizko zutabeetako bat. Euskadiko enpresa-sarearen gaitasun berritzailea I+G-ko jardueretan duen parte-hartze maila altuagatik nabarmentzen da. Hain zuzen, ikerlarien %72,7k lan egiten du sareko erakundeetan, eta I+G-ko gastuaren %75,1 exekutatzen dute.

Hori guztia posible izan da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Politiketari planifikatutako estrategia garatu delako Eusko Jaurlaritzak I+G-n egin duen etengabeko inbertsioaren bidez.

2015ean SPRIk **132.742.850** euro kudeatu ditu enpresei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileei zuzendutako laguntzetan. I+G+B-ko enpresa-proiektu teknologikoak lagundu ditu eta enpresa eta ikerketa-taldez eta teknologi-zentroz osatutako sarea osatzen jarraitu du, zeinak **1.010** enpresa teknologiko inguru sustatu baititu.

SPRIk bere ekintzen erreferente bezala hartzen du 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, zeinaren lehentasun estrategikoak ondoko hauek sustatuz garatzen baitira:

- Enpresen lehiakortasuna hobetzera eta oinarri teknologikoko enpresa berriak abian jartzera bideratutako I+G+B-ko prozesuak:

- **Gaitek**

Enpresetako I+G+B-ko proiektuak bultzatzeko programa, proiektu horien bidez produktu orijinalak eta merkatuan daudenak baino hobeak garatu ditzaten. Guztira, **1.143** proiektu aurkeztu dira. Proiektuak ebaluatu ondoren, **739** bultzatu dira **34.500.000** euroko diru-laguntzen bidez. **707** enpresak jaso dute laguntza eta horietatik %77 ETEak dira.

- **Emaitak Plus**

Laguntza programa hau Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareari zuzentzen zaio eta helburutzat du zentro teknologikoen emaitzak eta gaitasunak hobetuko dituzten ekintzak garatzea, ikerketa proiektuak finantzatuz. Korporazio teknologikoen eta beren zentro teknologikoen arteko lankidetzaren bidez lortzen da emaitzak hobetzea. 2015. ekitaldian aurkeztu diren **14** proiektuek onartuak izateko baldintza guztiak bete dituzte eta **50.142.850** euroko diru-laguntza eman zaie.

- **Kalifikazio Txosten Teknikoak Ondorio Fiskaletarako**

Zerbitzu honen bidez I+G+B gisa kalifikatutako enpresa-jarduerei buruzko txostenak egiten dira. Foru Aldundiekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari jarraiki, dokumentu horrekin eskuratzen dira Sozietateen Zergaren gaineko kenkariak. 2014ko ekitaldian **2.385** txosten egin dira **1.100** enpresarentzat.

- Enpresen eta sektoreen dibertsifikazioa, Euskadirentzat estrategikotzat jotzen diren esparruetako teknologian

oinarritua:

- **Etorgai**

Industri ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak –izaera estrategikokoak eta Euskadin trakzio indarra egingo dutenak– gauzatzeko laguntza programa. 2015ean zehar **43** proiektu ebaluatu dira eta horietatik **27**k jaso dute laguntza. Proiektu horiek denak lankidetzan egin dira, gutxienez hiru enpresaren artean. Guztira, **146** izan dira parte hartu duten enpresak, horietatik %63 ETEak, eta **28.000.000** euroko laguntza jaso dute.

- **Elkartek**

Programa honek Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareak gauzatutako ikerketa kolaboratiboko proiektuei laguntzen die, helburutzat harturik estrategia bat bultzatzea eta, estrategia horren bidez, erraztasunak ematea gure enpresa eta agente sozio-ekonomikoei erronka berriei aurre egin diezaieten, eta baita ere denboran iraungo duten lehiakortasun abantailak eraikitzea, enpresa berriak sor daitezzen sektore gorakorretan. 2015ean Etortek programak **59** proiektu lagundu ditu aurkeztu diren **111**ren artetik, eta **20.100.000** euro banatu dizkie proiektu horiei.

- Zientzia eta Teknologiari laguntzea, lehiakortasun-abantailak lortzeko eta Teknologi Transferentzia bultzatzeko bidea direlako:

- **EEN-Enterprise Europe Network Sarea**

SPRIk lideratzen du Enpresen Aholkularitzarako eta Berrikuntzari Laguntzeko Europako Sarearen ([Enterprise Europe Network](#)) euskal partzuergoa, zeinaren zati bat Europar Batasunak finantzatzen baitu. Laguntza zerbitzua eskaintzen du nazioz gairik teknologi transferentzia prozesuetarako eta I+G-ko proiektuen bidez lortutako emaitzak ustiatzeko.

Hedapen teknologikoa egiteko bere misioa betetz, 2015ean **1.464** parte-hartzaile izan dituzten **21** mintegi antolatu dira. Horrez gain, **2.960** harpidek jaso dituzten **13** ENN buletin editatu dira.

Gainera, Europako Eranet proiektuetan parte hartzen du, zeintzuek Europako herrialde eta eskualdeetako enpresen I+G+B-ko proiektuak babesteko programak abiarazten eta bultzatzen baitituzte.

Aipatzekoa da **6** InfoDay jardunaldi egin direla Horizontea 2020 Programak 2016-2017an barne hartuko dituen gaiak aurkezteko, beste InfoDay jardunaldi **1** klusterrentzako laguntza programei buruz, eta mintegi praktiko **1** “ETE Tresna” eta “Fast Track to Innovation” ekimenei buruz, CDTIrekin eta Euskadiko Teknologi Parkeekin batera. Halaber, **INTERGUNE+** ekitaldian parte hartu zen, enpresentzako jardunaldi **1** eta bilera bilateralak antolatuz.

2015ean **2 BrokerageEvents** enpresa-topaketa antolatu dira (**Imaginenano 2015**), eta baita ere COOLSWEEP proiektuaren barruko Waste-to-Energy hitzaldia eta **Misio Teknologiko 1** makina-erremintaren sektoreko Taiwango enpresentzat.

80 enpresari lagundu zaie teknologia transferitzeko prozesuetan.

- **BASKAM proiektua**

Europako Batzordearen Horizontea 2020 programak ko-finantzatzen duen **BASKAM 2015-2016**, Support Services to Basque SMEs to Enhance Innovation Management Capacities proiektuak helburu bikoitza du: batetik,

Euskadiko ETEei zerbitzuak eskaintzea berrikuntza kudeatzeko gaitasunak hobetu ditzaten, eta bestetik, “ETE tresna” programaren onuradunei Key Account Management (KAM) zerbitzuak eskaintzea, ETEen, coachen eta Europako Batzordearen arteko bitartekaritza lanak eginaz. Proiektua InnoBasque erakundearekin lankidetzan garatzen da. 2015ean, SPRIk berrikuntza kudeatzeko zerbitzuak eskaini dizkie **4** ETEri eta KAM zerbitzuak **3** ETEri.

BERRIKUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko 2013-2016 Ekintza Planaren barruko 2013-2016 Industrializazio Planak ezarritako jarraibideen arabera, SPRIko Berrikuntza Sailak garatzen dituen jarduerak hainbat ardatzetan sailkatzen dira: manufaktura aurreratuko estrategia transbertsala martxan jartzea, pertsonen enpresetan parte hartzearen sustatzea eta berrikuntza ez-teknologikoko estrategia berriro bultzatzea.

Estrategia berri horri jarraiki, Berrikuntza Sailak, [Innobideak Prestakuntza](#) Programaren bidez, zuzendaritza taldeentzako ezagutza eta sentsibilizazio jarduerak antolatu ditu Kudeaketa Aurreratuaren, Berrikuntzaren eta Lehiakortasunaren arloetan; horrez gain, enpresa-sarearen lehiakortasuna indartu du, dibertsifikazioaren, Kudeaketa Aurreratuaren eta pertsonen parte-hartzearen bitartez, [Innobideak Lehiabide](#), [Innobideak Kudeabide](#) eta [Innobideak Pertsonak](#) programak baliatuz.

Innobideak Prestakuntza

Innobideak Prestakuntza programak **76** ekintza garatu ditu Sentsibilizazio, Kudeaketa Aurreratuko Oinarrizko Hezkuntza eta Negozio Ereduen arloetan. Ekintza horiek **1.295** parte-hartzaile izan dituzte eta saioetan, informazioa jasotzeaz gain, lidergorako gaitasunak nahiz zuzendaritza gaitasunak garatu dituzte, behar-beharrezkoak direnak beren enpresen erronkei aurre egiteko.

Innobideak Lehiabide

Sentsibilizazio ekintzen ataleko azken elementu gisa, aipatzekoa da urtarrilean banatu zirela **Marcelo Gangoiti** sari ezagunak, Ezkerraldeko eta Bizkaiko Meatzaldeko enpresek urtero jasotzen dituzten garaikurrak. Era berean, azaroan **Gazte Role Model 2014** saria eman zen. Sari horrek elkartasun baloreak dituzten eta beren ahalegin eta gaitzitate ahalmenagatik nabarmentzen diren enpresa munduko pertsonen lana aitortzen du.

Programei dagokienez, **Innobideak Lehiabidek** helburutzat du proiektuak sustatzea produktu, zerbitzu edota merkatuaren dibertsifikazioa ahalbidetzeko; **98** eskaera jaso dira guztira, eta horietatik 65 babestu dira **1.644.169** €ko diru-laguntzarekin.

Innobideak Kudeabide

Innobideak Kudeabide programa bultzatzen jarraitu da Euskalitekin eta hiru Foru Aldundiekin elkarlanean, eta programa horren helburua da Euskadiko ETEen lehiakortasuna hobetzea kudeaketa hobetuz. Programaren datu globalei dagokienez, 2015ean **115** kontraste egin dira (programak iraun duen bi urteetan 361), eta proiektu pilotuen **63** eskaera (2A) eta sendotze proiektuen **176** eskaera (2B) aurkeztu dira. Azken horien artean eta, zehazki, 50 langile baino gehiagoko enpresek eskatutakoen artean (horiek baitira SPRIk zuzenean kudeatzen dituenak), **42** proiektu jaso dira, eta horietatik **35** finantzatu dira, **440.408 €**ko diru-laguntza banatu delarik.

Innobideak pertsonak

2015ean jarri da martxan **Innobideak Pertsonak** programa, zeinaren helburua baita langileen partaidetza sustatzea antolakundeetan. **28** proiektu jaso dira, eta horietatik **20** subentzionatu dira (guztira **357.258 €**).

Bestalde, 2015eko urriaren 14an egin zen **BasqueIndustry 4.0** ekitaldia, berrikuntzari, teknologiari eta ezagutzari buruzko

Euskadiko erreferentziazko topaketa bilakatu dena. Enpresei eta sustapen ekonomikoaren arloko beste agente batzuei zuzendurik dago eta nazioarteko adituek nahiz enpresetako arduradunek parte hartu zuten, beren esperientzia arrakastatsuak azaltzeko. **1.100** pertsona erregistratu ziren topaketan.

INFORMAZIO GIZARTEA

Euskadi Informazio Gizartean-Euskadiko Agenda Digitala **ADE2015** Plan berriaren helburua da informazio gizartea bultzatzea eta indartzea. SPRIren Informazio Gizarte Sailak euskarri funtzioa betetzen du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarentzat, Euskadiko Agenda Digitala 2015ean jasotako ekimenak diseinatu edota kudeatzeko lanetan.

Agenda digitala lau esparru edo ardatz estrategikotan aplikatzen da:

- **Komunitate digitala:** helburua da Sarean erantzukizunez, aukera berdintasunean eta gaikuntza teknologiko handiarekin elkarreragingo duen pertsonaz osatutako hiritargoa prestatzea.
- **e-Enpresa:** helburua da edozein tamainatako euskal enpresen lehiakortasuna eta produktibitatea hobetzea,

EIKTak, hots, Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiliz.

- **Zerbitzu digital** aurreratu eta erabilerrazak: euskal administrazio publikoak eragin handiko zerbitzu publiko digital aurreratuak eskain diezazkien hiritarrei eta enpresei.
- **Azpiegiturak**: euskal hiritarrek, enpresek eta administrazioak zerbitzu digital aurreratuak erabil ditzaten abiadura ultra-azkarrean, segurtasun maila handiarekin, prezio merkean eta edozein tokitatik.

Eusko Jaurlaritzak hala agindurik, SPRIk **ADE2015** programan sartutako hainbat ekimenen kudeaketan eta ekimenean lagundu du, bereziki eENPRESA deituriko ardatzaren barruko ekimenean. Ildo horretatik, **EIKTak** euskal enpresetan -eta 2015ean bereziki manufaktura arloko ETE industrialetan-sartzeko laguntzak banatu dira. Guztira **396** proiektu babestu dira **5.284.734** euroko diru-laguntzen bidez. Horrez gain, azpimarratzekoa da halaber **795** enpresak **EIKTak** inplementatzeari buruzko aholkularitza jaso dutela eta **12.832**

lagun inguru joan direla informazio teknologia berriei buruz antolatu diren **915etik** gora jardunaldi eta ikastarotara.

- **EIKT programak**

Industria Digitala

Ekimen honen helburua da laguntzak ematea Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (**EIKTak**) manufaktura arloko ETE (enpresa txiki eta ertain) industrialetan sartzeko. Programa honetara batez beste 38 langile inguruko plantilla duten ETEak aurkeztu dira, eta proiektu bakoitzak batez beste 8.200 euro inguruko diru-laguntza jaso du. Programa honek **EIKT** tresnak ezartzen laguntzen du, hala nola, produktuaren bizitza zikloa kudeatzeko, fabrikako datuak atzemateko, produkzio prozesua kontrolatzeko, produkzio prozesuarekin lotutako logistika kudeatzeko, produkzioa automatizatzeko, kontrol numerikorako, sensorikarako, eta ERP eta CRM prozesuetarako sistemak.

2015ean **331** proiektu bultzatu dira **2.713.977** euroko laguntzen bidez.

Basque Industry 4.0

Programa honen helburua da babesa ematea “teknologi hornitzaileen” teknologia manufakturako enpresa industrialei Transferitzeko Proiektuei, beti ere Fabrikazio Aurreratuari aplikaturiko **EIKTen** (Elektronika, Informazio eta Telekomunikazio Teknologien) esparruan, demostrazio-balioa dutenean eta, hortaz, lagungarri direnean **EIKTen** arloko I+G-ko proiektuen emaitzak azkarrago merkaturatzeko.

2015ean **16** proiektu bultzatu dira **1.883.928** euroko laguntzen bidez.

Landekitza Digitala

Programa honen bidez laguntzak ematen dira informazio teknologiak enpresa elkartetan eta profesionalen elkartetan sartzeko. 2015ean **49** proiektu bultzatu dira **686.829** euroko laguntzen bidez.

- **Zerbitzuak:**

Mikroenpresa Digitala

EIKT Konponbideen Ezarpena Programak (“**Inplantari Teknologikoak**”), Euskadiko autonomo eta mikroETEEi zuzendurik dagoenak, helburutzat du aholkularitza eta prestakuntza ematea Internet bidez eskuratu daitezkeen tresnen erabilpenari buruz. Hala, mikroenpresen lehiakortasuna hobetu da, kudeaketarako aplikazio informatikoak identifikatuz eta horiek inplementatzeko aholkularitza espezializatua emanez. 2015ean zehar programako tresnen katalogoko **11.204 EIKT** konponbide ezarri dira **795** mikroenpresatan. Era berean, autonomo eta mikroenpresentzako prestakuntza eskaini da negozioak kudeatzeko **EIKT** tresnen erabilpenari buruz eta 2015ean eskaini diren **619** ikastaroek **3.440** parte-hartzaile izan dituzte. Ikastaro horiek **KZgunea** zentroyen sarean eman dira.

Enpresa Digitala zentroak

Zerbitzu honek **EIKTen** sustapen, hedapen eta prestakuntza ekintzak eta ekitaldi bereziak sustatzen ditu. Elektronika, Informazio eta Komunikazio Teknologiei buruzko ikastaro, mintegi, jardunaldi eta kongresuak eskaintzen ditu 4 Teknologia Parkeetan kokatutako Enpresa Digitala Zentroyen bitartez. 2015ean zehar **274** ekitaldi antolatu dira guztira eta **9.114** lagunek parte hartu dute horietan.

Barnetegi Teknologikoa

Zerbitzu honek **EIKT** tresnei buruzko prestakuntza trinkoa eskaintzen du murgiltze formatuan, erakusteko nolako balioa izan dezaketen IKTek norberaren nahiz enpresaren produktibitatea handitzeko. Edozein jarduera sektoreri zabalik dago eta edukiak kolektibo zehatzen premien arabera egokitzen dira. Euskal enpresa txiki eta ertainetan zuzendaritza eta kudeaketa funtzioak betetzen dituzten profesionalei zuzenduta dago. 2015ean **278** lagunek parte hartu dute antolatu diren **22** Barnetegietan.

IT Txartela

Informazio teknologiei buruzko oinarritzko gaitasunak ziurtatzeko sistema da; objektiboki akreditatzen du pertsona batek badituela tresna informatikoak eta Internet erabiltzaile mailan erabiltzeko adinako ezagutzak. 2015. urtean guztira **44.580** azterketa egin dira eta **21.728 IT Txartel** eman dira.

PC Lagun ekimena

Enpresek eta administrazioak emandako ekipo informatikoak atontzen ditu, software librearekin berrerabiltzeko eta bazterkeria digitala jasateko arriskuan dauden kolektiboei emateko. 2015ean **1.224** ekipo informatiko birziklatu dira software librea erabiliz.

www.euskadinnova.net ataria

SPRIk bultzatutako “Euskadiko berrikuntzaren atari” honek **562.244** bisita izan ditu, bere asteroko albiste-buletinak **31.960** harpide ditu, dispositibo mugikorretako aplikazioen bidez (Smartphone) **120.330** bisita egin dira eta **1.081.853** orrialde bistaratu dira. Bestalde, Twitter sare sozialeko [euskadinnova](http://www.euskadinnova.net) kontuak **8.450** jarraitzaile ditu.

Metaposta

Interneteko postontzi eta gordailua da. Segurtasun osoz gorde daitezke balio legala duten dokumentuak eta pertsonen nahiz enpresen bizitzetan garrantzia dutenak (fakturak, nominak, bankuko egiaztagiriak, aseguru polizak, osasun informazioa,

ziurtagiri akademikoak...)). 2015. urtea amaitzean zerbitzuak
58.794 erabiltzaile izan ditu.

FINANTZAKETA

Finantza inbertsioak. AKEKS

Euskadiko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A. 1985eko urrian eratu zen helburutzat harturik **Arrisku Kapitalaren** inguruko jarduera sustatzea Euskadin, hots, finantza fluxuak atzematea ondoren enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeko aldi baterako partaidetza minoritarioa hartuz enpresa horien kapital sozialean.

2015ean etorkizuneko proiektu bideragarriak hautatzen eta atzematen jardun du Euskadiko enpresa-sarea indartzeko eta dinamizatzeko.

Ekitaldi honetan **12.458.000 euroko 29 inbertsio** egin dira eta **4.557.000 euroko 10 desinbertsio** egin dira.

Kudeatutako Erakundeak

Euskal Herriko Arrisku Kapitaleko Kudeaketa AKEKS, S.A.k erakunde hauek kudeatzen zituen 2015eko abenduan:

- **Ezten** - Arrisku Kapitaleko Fondoa.

- Kudeatutako kapitala: **101.742** mila euro.
 - Edozein garapen fasetan dauden enpresen kapitalean eginiko inbertsioak.
 - Parte-hartzaileak: SPRI %79,31, Eusko Jaurlaritza %5,05 eta Finantzen Euskal Institutua %15,64.
- **Ekintzaile XXI - Arrisku Kapitaleko Fondoa.**
- Kudeatutako kapitala: **5.419** mila euro.
 - Teknologia berriak intentsiboki eta estentsiboki erabiltzen dituzten enpresa berritzaileetan egindako inbertsioak.
 - Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza %81,55, SPRI %18,45.
- **Suztapen - Arrisku Kapitaleko Fondoa.**
- Kudeatutako kapitala: **8.000** mila euro.
 - Sendoturik edo garapen bidean dauden enpresetan egindako inbertsioak.
 - Parte-hartzaileak: SPRI %47, Finantza Erakundeak %51,78, Beste batzuk %1,22.
- **Elkano XXI - Arrisku Kapitaleko Fondoa.**
